

AUZITEGIAK HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO KONDENATU DU

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko lan arloko salak Haurreskolak Partzuergo Publikoa kondenatzen du 2018ko martxoaren 6an LAB sindikatuarekin sinaturiko akordioaren 1go atala betetzera, beraz, partzialki estimatzen du LABek aurkeztutako demanda.

Gauzak horrela, artikulua hau betetzera kondenatzen du:

“1.- Kudeaketako langileen Lan Eskaintza Publikoa.

Partzuergoko kudeaketa alorreko lanpostuak arautu beharra ikusita, beharrezkoa deritzogu lanpostu zerrendatan isladatzea, beraien funtzioak adostuz. Beraz, gaur egun, kudeaketa arloan dauden lanpostuak, lanpostu zerrendan arautuko dira, funtzioak zehaztuz, eta sindikatuarekin negoziatuko dira.

Lanpostu Zerrendak argitaratu ondoren, Lan Eskaintza Publikoaren egutegia eta baldintzak sindikatuarekin negoziatuko dira. Negoziazio honen metodologia zehaztu beharko delarik. Hori guztia, Haurreskolak Partzuergoaren lan hitzarmenenaren, 16. artikuluan, ezarritakoari jarraiki, bertan pertsonal finkoa hautatzeko prozesua zehazten baita.

Ondorioz, akordio honen bidez, Kudeaketa alorreko pertsonaleko lanpostuak eskainiko dira, bi urtetan (2019-2020) egingo den, Lan Eskaintza Publikoaren bidez.

Oposaketa aldiko zerrendekin ordezkapenak egiteko lan poltsa sortuko da.

Era berean, kudeaketako langileen ordezkoen araudia eta barne promozioen araudia negoziatuko da. Mahai negoziatzailean egutegia, metodologia eta prozedura guztia negoziatuko da.”

Jakingo duzueenez, 2003an sortu zen Haurreskolak Partzuergoa. Ordutik kudeaketako langileen lanpostuen kopurua handitzen joan da inongo erregularizaziorik egin gabe, lanpostuen zerrenda sortu gabe, alegia.

LABek alde sozialetik aldebakarrez sinatutako 2018ko akordioaren lehenengo artikuluan erregularizazio horren aldeko hautua egin zuen, eta artikulua hau garatze bidean aurreakordioa sinatu zuen 2020an, hau ere aldebakarrez. Administrazioak ez du bata ez bestea bete, ez eta ahaleginik egin ere beste bide batetik adostasunetara heltzeko.

Bitartean LABek 2019ko otsailean, aldebakarrez ere, indarrean dagoen eta barematu behar den kudeaketako langileen lan poltsak irekitzeko akordioa lortu zuen, ordezkapenak betetzeko zegoen arazoa konponduz.

Halaber kudeaketako langileen barne sustapenen araudia eta ordezkoen araudia negoziatuta daude. Bestalde, lanpostuen kategoria eta soldaten ekipazioa gauzatzea eskatuko dugu.

Administrazioaren utzikeria, fede txarra eta egin diguten iruzurrak epaitegian bukatu du. Gainera gai honekiko gainontzeko sindikatuen jarrerak ez du lagundu bidean; gerora mahaietan akordioaren eta aurreakordioaren defentsa egin badute ere, epaiketean ez zirela agertu esan behar dugu.

Orain Justizia Auzitegi Gorenak arrazoia eman digunez eta oinarriak ezarrita daudenez, ahalik eta lasterren zigorra betetzea eskatzen dugu; LAB sindikatuak enplegua egonkortzeko bidean lehenengo urratsa sortu du. Kontsolidazio prozesua izan dadin ekarpenak egiten jarraituko dugu, eta lan hitzarmen berriaren negoziazioan lan baldintzak hobetzeko borrokan jarraituko dugu.

Zorionak kudeaketako lankideei, bidea luzea izan da eta borrokan jarraituko dugu!